

Hau txosten zabalago baten laburpena baino ez da, web honetan eskura daitekeena.
versión reducida de un informe más amplio disponible en:

www.barrix.com

2009

2007KO BIZKAIKO TEKNOLOGI
BERRIKUNTZAREN INKESTA

ENCUESTA DE INNOVACIÓN
TECNOLÓGICA DE BIZKAIA 2007



Metodologia

Metodología

Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) 2008ko azken hiruhilekoan egin zuen 2005-2007 aldiak jasotzen dituen Teknologi Berrikuntzaren 2007ko Inkesta. Txosten hau egiteko Inkestan jasotako Bizkaiko datuen taula aztertu eta landu da. Barrixe-Bizkaiko Berrikuntza Behatokiak berariaz eskatu dio Eustati informazio hau txosten honetarako.

El Instituto Vasco de Estadística (Eustat) realizó la Encuesta de Innovación Tecnológica 2007 que abarca los años 2005 a 2007 a lo largo del último trimestre de 2008. El presente informe se basa en el análisis y explotación de las tablas de datos para Bizkaia de dicha Encuesta, la información ha sido obtenida ad-hoc para barrixe, el Observatorio de Innovación de Bizkaia.

Bizkaiko enpresa* berritzailearen erradiografia

Radiografía de la empresa* innovadora de Bizkaia

	2006	2007
<i>Enpresa berritzaileak</i> □ Empresas innovadoras	30,5% □	29,9%
<i>Teknologi berrikuntzarekin lotutako jarduerak burutu dituzte</i> □ Han realizado actividades relacionadas con la innovación tecnológica	28,9% □	27,2%
<i>Produktu berritzaileak sartu dituzten enpresak</i> □ Empresas con actividades innovadoras	32,1% □	32,6%
<i>Enpresarako produktu berrien negozio-zifraren ehunekoa</i> □ Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para la empresa	19,9% □	21,3%
<i>Merkaturako produktu berrien negozio-zifraren ehunekoa</i> □ Porcentaje de la cifra de negocio de los productos nuevos para el mercado	7,3% □	9,2%
<i>Prozesu berritzaileak sartu dituzten enpresak</i> □ Empresas que han introducido procesos innovadores	26,6% □	24,5%
<i>Berrikuntza jardueretarako laguntza finantzario publikoak jaso dituzten enpresak</i> □ Empresas que han recibido apoyo financiero público para actividades de innovación	45,4% □	50,3%
<i>I+G eta berrikuntza jardueretarako lankidetzak hitzarmenak dituzten establezimenduak</i> □ Establecimientos con acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación	27,1% □	25,3%
<i>Berrikuntzak gauzatzeko eragozpenak aurkitu dituzte</i> □ Han encontrado dificultades para realizar innovaciones	63,9% □	60,3%
<i>Patenteak eta bestelako babes metodoak darabiltzate</i> □ Uso de patentes y otros métodos de protección	22,4% □	23,8%
<i>Bestelako aldaketak edo hobekuntzak egin dituzte estrategian eta antolakuntzan</i> □ Han realizado otro tipo de cambios o mejoras estratégicas y organizativas	25,9% □	22,6%

*10 langile edo gehiagokoak | *con 10 ó más trabajadores/as/as

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %32,6k berrikuntzak egin dituzte (esamolde honen barruan sartzen dira bidean diren berrikuntza jarduerak, bai eta huts egiteagatik merkaturatu ez direnak) beren enpresetan 2007an, eta kopuru hau 2006koa baino 0,5 puntu handiagoa da.

Un 32,6% de las empresas de 10 ó más trabajadores/as de Bizkaia hace innovación en 2007, (dicha acepción recoge también las actividades sobre innovación que están en curso y las que han resultado fallidas y, por consiguiente, no han salido al mercado) el porcentaje es inferior en 0,5 puntos porcentuales superior al de 2006.

Teknologi berrikuntzarako jarduerak

Actividades para la innovación tecnológica

Teknologi berrikuntzarako jarduerak zientzia, teknologia, antolakuntza, finantza eta merkataritza lanen multzoa dira, baita jakintza berrietarako egindako inbertsioa ere, teknologikoki berriak edo hobetuak diren produktuak edo prozesuak egitera daramaten edo eraman nahi duten jakintzak, alegia.


Bizkaiko enpresen %27,2k teknologi berrikuntzarekin lotutako jarduerak burutu dituzte 2007. urtean, hau da, 2006. urteko ehunekoa baino 1,7 puntu gutxiago.

Las actividades para la innovación tecnológica son el conjunto de trabajos científicos, tecnológicos, organizativos, financieros y comerciales, incluyendo la inversión en nuevos conocimientos, que conducen o pretenden conducir a la realización de productos o procesos tecnológicamente nuevos o mejorados.

Un 27,2% de las empresas de Bizkaia ha realizado en 2007 actividades relacionadas con la innovación tecnológica, un porcentaje inferior en 1,7 puntos al de 2006.

TEKNOLOGI BERRIKUNTZARAKO JARDUERAK

ACTIVIDADES PARA LA INNOVACIÓN TECNOLÓGICA



(1) patenteak, lizentziak, fabrika markak, softwarea eta abar erabiltzeko eskubideak erostea

(2) berrikuntzak merkaturatzearekin zuzenki lotutako jarduerak

(3) beste atal batzuetan sartzen ez diren berrikuntzak inplementatzeko prestaketak.

(1) compra derechos uso patentes, licencias, marcas fábrica, software, etc.

(2) actividades directamente relacionadas con la introducción en el mercado de las innovaciones.

(3) preparativos para realizar la implementación real de las innovaciones no comprendidos en otros apartados.

Industri establezimenduen %33,6k eta zerbitzu establezimenduen %27k hainbat jarduera burutu dituzte 2007. urtean teknologi berrikuntzak lortzeko.

Tamainak badu eragina berrikuntzan, izan ere, berrikuntza gutxien sortzen dituzten enpresak 10 eta 19 (%20,5) eta 20 eta 49 langile bitartekoak dira (% 26,9).

Un 33,6% de los establecimientos industriales y un 27% de los de servicios ha llevado a cabo diversas actividades en 2007 con la finalidad de obtener innovaciones tecnológicas.

El tamaño es un factor que influye en la innovación, así, las empresas de entre 10 y 19 trabajadores/as (20,5%) y las de entre 20 y 49 (26,9%) son las que menos innovan.



Enpresa berritzaileak Empresas innovadoras

Produktu edota prozesu berritzaileak sortu dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen, hots, enpresa berritzaileen ehunekoa 2007. urtean %29,9koa izan da eta aurreko urtekoa baino 0,6 puntu baxuagoa da.


Industriaren sektorean, 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileen kopurua are handiagoa da, alegia, %32,8koa (2006ko kopurua baino hiru puntu baxuagoa). Zerbitzuen sektorea ere, batez besteko orokorraren gainetik kokatu da, ia lau puntuko igoera izan baitu (% 31,1). Aitzitik, eraikuntza sektoreko 10 langile edo gehiagoko enpresen %19,1ak bakarrik berritu du produktuan edota prozesuan, aurreko urteko ehunekoaren ia erdiak.

El porcentaje de empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados/as que han introducido productos y/o procesos innovadores, es decir, empresas innovadoras, en 2007 alcanza un 29,9%, y es inferior en 0,6 puntos al correspondiente a un año antes.

El porcentaje de empresas innovadoras de 10 ó más empleados/as del sector industrial es todavía más elevado, alcanzando una tasa del 32,8% (tres puntos inferior a la cifra de 2006). El sector de servicios, con un 31,1%, también se sitúa por encima de la media general, registrando un ascenso de casi cuatro puntos porcentuales. Por el contrario, sólo un 19,1% de las empresas del sector de la construcción de 10 ó más empleados innova en producto y/o proceso, porcentaje que es casi la mitad al del año anterior.

ESTABLEZIMENDU BERRITZAILEAK JARDUERA ADARREN ARABERA

ESTABLECIMIENTOS INNOVADORES POR RAMA DE ACTIVIDAD



2005
2006
2007

03

aurretik
2009

Berrikuntzaren finantzazio publikoa Financiación pública de la innovación

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %50,3k laguntza finantzario publikoa jaso du 2007an, mailegu edo diru-laguntza moduan, berrikuntza jardueretarako; portzentaje hori 2006. urtekoa baino 4,9 puntu handiagoa da. Finantzazio horren zatirik handiena Eusko Jauriaritzak (%38,2) eta Bizkaiko Foru Aldundiak (%16,8) emandakoa da.

Aitzitik, zerbitzuen (%56,2) eta industriaren (%51,5) sektoreek Bizkaiko batez bestekoa gainditu dute. Berrikuntza arloan bizitasun gutxien duena izaki, eraikuntza sektorea izan da laguntza finantzario publiko gutxien lortu duena bere berrikuntza jardueretarako.

Un 50,3% de las empresas de 10 ó más empleados/as de Bizkaia que hace innovación recibe en 2007 apoyo financiero público, ya sea en forma de préstamos o subvenciones, dicho porcentaje se sitúa 4,9 puntos por encima de su equivalente en 2006. La mayor parte de dicha financiación proviene del Gobierno Vasco (38,2%) y de la Diputación Foral de Bizkaia (16,8%), en ambos casos también con tasas superiores a un año antes.

Tanto el sector de servicios (56,2%) como la industria (51,5%) presentan porcentajes que superan la media del conjunto de Bizkaia. Por el contrario, el sector de la Construcción, el menos activo en materia de innovación, es el que menos financiación pública ha conseguido para sus actividades de innovación.

Nork garatu ditu prozesu horiek?

¿Quién ha desarrollado estos procesos?

Produktu berrikuntzako kasuetan gertatzen den bezala, prozesu berrikuntzak gehiago gertatzen dira establezimenduan bertan (%41,3) edo enpresatik kanpo (%27,8), eta biak ala biak hazi egin dira 2006aren aldean.


Prozesu berrikuntza sektoreka aztertzen badugu, eraikuntza joera nabarmen aldatu dela ikusiko dugu. Horrela, establezimenduan bertan garatutako prozesu berrikuntza asko hazi da aurreko urtearen aldean (%61,3). Alderantziz, behera egin dute enpresako beste establezimenduekin egindako lankidetzek. Industri sektorean, berriz, beste enpresekin egindako lankidetzak bigarren postuan dago, %24,8arekin.

Al igual que ocurre en el caso de las innovaciones de producto, las innovaciones de proceso se realizan en mayor medida en el propio establecimiento (41,3%), o fuera de la propia empresa (27,8%), dos porcentajes que además se incrementan con respecto a 2006.

Si analizamos la innovación de proceso por sectores observamos un cambio de tendencia importante en la construcción, pasando a prevalecer en el desarrollo de la innovación de nuevos procesos el propio establecimiento (61,3%) en detrimento de la cooperación con otros establecimientos de la empresa, mientras que en el sector industrial el segundo lugar, con un 24,8%, lo ocupa la cooperación con otras empresas.

NORK GARATZEN DITU BERRIKUNTZAK?

¿QUIÉN DESARROLLA LAS INNOVACIONES?



Nork garatu ditu produktu horiek?

¿Quién ha desarrollado esos productos?

Produktu/zerbitzu berrikuntzarik gehienak enpresan bertan garatzen dira (%43,6). Azpimarratzekoa da baita ere beste enpresa edo erakunde batzuekin izandako lankidetzak hazi egin dela (%23,2) eta enpresa bereko beste establezimenduekin egindakoa ere bai (%17,5). Beste enpresa edo erakunde batek egindako produktu/zerbitzu berrikuntzaren (%15,8an bakarrik) ehunekoa erdira jaitsi da 2006arekin alderatuta.

10 enplegatu edo gehiagoko industri enpresen ia bi herenek (% 65,5) produktu edo zerbitzu berrikuntzak barnean garatu dituzte 2007an, eta portzentaje horrek 0,6 puntu egin du behera aurreko urtearen aldean. Zerbitzuen sektorean ere nagusiki establezimenduan bertan egiten dira produktu berrikuntzak (%31,2), halere, aurreko urtekoaren aldean behera egin du beste enpresekiko lankidetzaren mesedetan, eta honek %31ko portzentajea lortu du. Eraikuntzaren sektorean, produktu/zerbitzu berriak gehienbat enpresatik kanpo eman dira (%69,8).

En 2007 cobra especial relevancia la innovación de producto/servicio desarrollada en las propias empresas (43,6%), aunque también incrementa su importancia la cooperación, tanto con otras empresas o instituciones (23,2%) como con otros establecimientos de la misma empresa (17,5%). Únicamente en un 15,8% de los casos, la innovación de producto/servicio se ha llevado a cabo por otra empresa o institución, reduciéndose además el porcentaje a la mitad con respecto a 2006.

Prácticamente dos tercios (65,5%) de las empresas industriales de 10 ó más empleados/as desarrollan en 2007 internamente las innovaciones de producto o servicio, dicho porcentaje se reduce 0,6 puntos porcentuales con respecto al año anterior. En el sector de servicios, aunque predomina también el desarrollo de nuevos productos en el propio establecimiento (31,2%), éste pierde terreno con respecto al año anterior a favor de la cooperación con otras empresas, que alcanza un 31%. En el sector de la construcción el desarrollo de nuevos productos/servicios se ha llevado a cabo mayoritariamente (69,8%) fuera de la empresa.



Teknologi berrikuntza mota

Tipo de innovación tecnológica

Bizkaiko enpresek berrikuntza gehiago sortzen dute prozesuan (%24,5) produktuan (%12,9) baino.


Bizkaiko ekoizpen sektore guztiek joera nagusiari jarraitzen diote, izan ere, denek sortzen dute berrikuntza gehiago prozesuan produktuan baino, bakoitzak ezaugarri propioak dauzkan arren. Honela, industrian aldea txikia da (prozesuko berrikuntzak %20,6 dauka eta produktuko berrikuntzak, berriz, %20,3a). Aitzitik, eraikuntzaren sektorean eten handia ikus daiteke bien artean (%4,7a %19,1aren aldean). Zerbitzuen sektoreak ere jarduera berritzaile handiagoa dauka prozesu berriak ezartzen (%27,3) produktu berrietan baino (%11,9).

Las empresas de Bizkaia innovan significativamente más en proceso (24,5%) que en producto (12,9%).

Todos los sectores productivos de Bizkaia siguen la tónica general, innovando más en proceso que en producto, si bien con características propias. De éste modo, en la industria la diferencia es pequeña (20,6% para al innovación en proceso frente a 20,3% para la innovación en producto), mientras que en la construcción aparece una importante brecha entre ambas (4,7% frente a 19,1%). El sector de servicios presenta también una mayor actividad innovadora en la implantación de nuevos procesos (27,3%) que en nuevos productos (11,9%).

TEKNOLOGI BERRIKUNTZA MOTAK

TIPO DE INNOVACIÓN TECNOLÓGICA



05
aurretik
2009

Produktu berrien eragin ekonomikoa enpresarentzat

Impacto económico de los productos nuevos para la empresa

2007an merkaturatu diren enpresarako produktu edo zerbitzu berriei dagokie 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen negozio-zifraren %21,3. Portzentaje honek 1,4 puntutan gainditzen du 2006ko ehunekoa (%19,9).

Berrikuntza horiek eragin handiagoa dute zerbitzu sektoreko emaitzen kontuan (% 22,8) industria sektorekoen kontuan baino (% 21,6).

Un 21,3% de la cifra de negocio de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados/as es atribuible a productos/servicios nuevos para la empresa introducidos en el mercado a lo largo del 2007. Este porcentaje es superior en 1,4 puntos al del 2006 (19,9%).

El impacto en la cuenta de resultados de estas innovaciones es superior en el sector servicios (22,8%) que en el industrial (21,6%).

Berrikuntza eragozten duten faktoreak

Factores que dificultan la innovación

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %60,3k eragozpenen bat aurkitu du 2007. urtean berrikuntza jardueran, hots, 2006ko (%63,9) portzentajea baino 3,6 puntu gutxiago.


Sektoreka eta enpresen tamaina aztertuta, industria sektoreak (%73,6) eta 100 langile baino gehiago dituzten enpresek (%75,3) aurkitzen dute eragozpen gehien, eta sarritan eragozpen hauek berrikuntzaren kostu handien eta gehiegizko arrisku ekonomikoen ondoriozkoak izaten dira. Gainera, enpresek uste dute finantziario iturri egokiak falta zaizkiela.

Un 60,3% de las empresas de 10 ó más empleados/as de Bizkaia ha encontrado en 2007 algún tipo de dificultad en su actividad de innovación, un porcentaje 3,6 puntos inferior al del año 2006 (63,9%).

En el análisis sectorial y por tamaño de empresa, observamos que la industria (73,6%) y las empresas con más de 100 trabajadores/as (75,3%) son las que más dificultades encuentran, especialmente originadas por los elevados costes de innovación, porque los riesgos económicos les parecen excesivos y porque consideran que les faltan fuentes de financiación apropiadas.

BERRIKUNTZA ERAGOZTEN DUTEN FAKTOREAK

FACTORES QUE DIFICULTAN LA INNOVACIÓN



Produktu berrien eragin ekonomikoa merkatuarentzat

Impacto económico de los productos nuevos para el mercado

10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresetan 2007. urteko negozio-zifraren % 9,3 produktu edo zerbitzu berriak edo nabarmen hobetuak sartzearen ondoriozkoa da (establezimenduarentzat ez ezik, bere merkatuarentzat ere berriak). Kopuru hau aurreko urtekoa baino bi puntu handiagoa da (2006).

Zerbitzuen sektoreko enpresak (%10,7) dira produktu berriak merkaturatzeagatik fakturazio portzentajerik handiena dutenak. Industriaren sektoreak hurbiletik jarraitzen dio %8,3rekin.

Un 9,3% de la cifra de negocio en 2007 de las empresas de Bizkaia de 10 ó más empleados/as ha venido originado por la introducción de productos o servicios nuevos o sensiblemente mejorados no sólo nuevos para su establecimiento, sino también para el mercado en el que operan. Dicha cifra es dos puntos superior a la equivalente de un año antes (2006).

Las empresas del sector servicios (10,7%) son las que presentan un mayor porcentaje de facturación de la introducción de nuevos productos para el mercado. En una posición cercana se sitúa el sector industrial (8,3%).



Teknologi berrikuntzarako batez besteko gastua

Gasto medio para la innovación tecnológica

Berrikuntzak sortzen dituzten 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresek barneko I+G jardueretarako erabiltzen dute baliabiderik gehien, eta horren ondoren makineria eskuratzeko. Dena den, eboluzio desberdina daukate. Honela, lehena 2007an hazi egin da aurreko urtekoarekin alderatuta (%16,6) eta bigarrena berriz -%25,8 jaitsi da. Hazkunderik deigarriena berrikuntzen benetako implementazioa egiteko diseinu eta prestaketa teknikoetan eman da, hirukoiztu egin baitu 2006ko zifra.

Industri sektorea da zalantzarik gabe makineria eskuratzeko baliabide gehien erabiltzen dituen. Zerbitzuen sektoreak, berriz, barneko I+Gn kontzentratzen ditu baliabideak.

Enplegu mailaren arabera azterketa bat eginez gero, tamainaren eta baliabideen logika dela eta, ageri da 100 langile eta gehiago dituzten enpresen batez besteko inbertsioa askoz ere handiagoa dela gainerako segmentuetan baino.

La I+D interna es la actividad a la que dedican más recursos las empresas de 10 ó más empleados/as de Bizkaia que innovan, seguida de la adquisición de maquinaria. Sin embargo, su evolución es distinta. De este modo, mientras que la primera de ellas muestra un incremento en 2007 con relación a un año antes (16,6%), la segunda disminuye en un -25,8%. El crecimiento más llamativo tiene lugar en el diseño y preparativos técnicos para realizar la implementación real de innovaciones, que multiplica por tres la cifra de 2006.

El sector industrial es, con diferencia, quien más recursos dedica a la adquisición de maquinaria. El sector de servicios concentra sus recursos en la I+D interna.

En un análisis por estrato de empleo se puede observar que, por lógica de dimensión y disponibilidad de recursos, las empresas con plantilla superior a 100 empleados/as, muestran una inversión media significativamente superior a la del resto de segmentos.

Teknologi berrikuntzarako batez besteko gastua jarduera adarraren arabera

Gasto medio para la innovación tecnológica por rama de actividad

	Guztira Total		Industria Industria		Eraikuntza Construcción		Zerbitzuak Servicios	
euro	2006	2007	2006	2007	2006	2007	2006	2007
Barneko I+G I+D Interna	67.277	78.460	92.097	94.637	1.707	393	71.583	89.574
Kanpoko I+G I+D Externa	10.730	16.104	27.357	43.320	365	8.461	6.131	7.052
Makineria eskuratzeko Adquisición de Maquinaria	36.025	62.733	88.282	78.857	35.710	2.729	14.378	11.494
Kanpoko beste jakintza batzuk (1) Otros conocimientos externos (1)	5.886	5.671	16.877	15.811	1.049	145	2.397	2.598
Pertsonal berritzailearen prestakuntza Formación al personal innovador	1.531	1.347	2.392	2.238	313	375	1.445	1.212
Produktu berritzaileak merkaturatzea (2) Comercialización de productos innovadores (2)	3.225	4.343	2.659	8.979	0	20	4.179	3.477
Berrikuntzak implementatzeko diseinua eta prestaketak Diseño y preparativos para la implementación de innovaciones	1.679	4.227	3.220	8.620	13	880	1.411	3.239

(1) patenteak, lizentziak, fabrika markak, softwarea eta abar erabiltzeko eskubideak erostea

(2) berrikuntzak merkaturatzearekin zuzenki lotutako jarduerak

(1) compra derechos uso patentes, licencias, marcas fábrica, software, etc.

(2) actividades directamente relacionadas con la introducción en el mercado de las innovaciones

Lankidetza hitzarmenak dituzten establezimenduak


Establecimientos con acuerdos de cooperación

Bizkaian 10 enplegatu edo gehiago dituzten eta berrikuntzak sortzen dituzten enpresen %25,3k lankidetza hitzarmenak izenpetu dituzte beste enpresa edo erakunde batzuekin I+G jardueren inguruan 2005-2007 bitarteko ekitaldietan. Portzentaje hori 2006koa baino 1,8 puntu txikiagoa da.

Un 25,3% de las empresas de 10 ó más empleados/as de Bizkaia que innova ha firmado acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación con otras empresas o Instituciones en el horizonte temporal 2005-2007. Dicho porcentaje se sitúa 1,8 puntos por debajo del correspondiente a 2006.

LANKIDETZA HITZARMENAK DITUZTEN ESTABLEZIMENDUAK

ESTABLECIMIENTOS CON ACUERDOS DE COOPERACIÓN



08
aurretik
2009

2006an ez bezala, zerbitzuetan berritzen duten enpresek (%28,7) lankidetza akordio gehiago lortu dituzte industrian aritzen direnek baino (%26,7).

Hartara, enplegu mailari erreparatuz gero, berritzen duten enpresarik handienetan (100 langile eta gehiagokoetan) %50,2 dira I+G eta berrikuntza jardueren inguruko lankidetza hitzarmenak izenpetu dituztenak, eta portzentaje hori %19raino jaisten da enpresa txikiagoetan (20 eta 49 langile bitarte).

Al contrario de lo que ocurría en 2006, las empresas innovadoras de servicios (28,7%) suscriben más acuerdos de cooperación que las industriales (26,7%).

En el análisis por estrato de empleo, un 50,2% de las empresas más grandes (con más de 100 trabajadores/as) y que innova, suscribe acuerdos de cooperación sobre actividades de I+D e innovación, porcentaje que va disminuyendo hasta el 19% para las empresas con plantilla situada entre 20 y 49 trabajadores.



Patenteak eta bestelako babes metodoak

Patentes y otros métodos de protección

2007an, 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko enpresen %23,8k patenteren bat eskatu dute, patenteren bat indarrean zuten edo beren asmakariak edo berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili dute. Ehuneko hori 2006koa baino 1,4 puntu handiagoa da.


Bizkaiko industria eta eraikuntza enpresak dira adierazle hori igoarazi dutenak. Zerbitzuen sektorea 2006ko maila baino bi puntu beherago mantendu da.

En el año 2007, un 23,8% de las empresas de Bizkaia de 10 ó más trabajadores/as ha incrementado la protección de sus innovaciones, solicitando alguna patente, utilizando alguna patente en vigor o haciendo uso de algún otro método para proteger sus invenciones o innovaciones. Este porcentaje es 1,4 puntos porcentuales superior a la tasa correspondiente a 2006.

Las empresas industriales Bizkaia y las de la construcción, son quienes contribuyen a la mejora del indicador. El sector servicios permanece dos puntos por debajo del nivel de 2006.

PATENTEEN ETA BESTELAKO BABES METODOEN ERABILERA

USO DE PATENTES Y OTROS MÉTODOS DE PROTECCIÓN



Industriaren sektoreak burutzen ditu horrelako jarduera gehien, %32,5 hain zuzen ere. Atzeragotik jarraitzen dio zerbitzuen sektoreak (%22,3). 10 langile edo gehiagoko Bizkaiko industrien %13,3k patenteren bat zuten indarrean 2007. urtearen amaieran, hots, 2006an baino 0,5 puntu gehiago erregistratu dira.

Enpresa handien (100 langile edo gehiagokoak) %44,9k patenteren bat eskatu dute 2007ko ekitaldian, patenteren bat indarrean zuten 2007. urtearen amaieran edo beren asmakariak edo berrikuntzak babesteko metodoren bat erabili dute aldi horretan.

La industria, con un 32,5%, es el sector más activo, seguido a una cierta distancia por el sector de servicios (22,3%). Un 13,3% de las industrias de Bizkaia de 10 ó más trabajadores/as tenía algún tipo de patente en vigor a finales de 2007, lo que supone un incremento de 0,5 puntos con relación al año 2006.

Un 44,9% de las empresas de mayor tamaño (más de 100 trabajadores/as) ha solicitado alguna patente en el 2007, tenía alguna patente en vigor a finales de 2007 o ha hecho uso de algún método para proteger sus invenciones o innovaciones en ese período.

Beste aldaketa batzuk estrategian eta antolakuntzan

Otros cambios estratégicos y organizativos

Produktu (ondasun zein zerbitzu) eta prozesu berrikuntzak ez ezik, enpresek bestelako aldaketa eta hobekuntza batzuk ere egin ditzakete estrategian eta antolakuntzan. Bizkaiko enpresen %22,6k horrelako aldaketaren bat egin dute 2005-2007 ekitaldietan. Ehuneko hori aurreko urtekoa baino 3,3 puntu baxuagoa da.


Sektoreka, 2007an estrategian edo antolakuntzan aldaketak egin dituzten 10 langile edo gehiagoko industriak %23,3 dira. Ehuneko hau 2006eko baino 6,7 puntu baxuagoa da. %14,7k aldaketak egin dituzte kontzeptuetan/marketin estrategietan eta %11k produktuen diseinua aldatu dute.

Las empresas, además de las innovaciones en productos (bienes y servicios) y procesos, pueden haber realizado otro tipo de cambios o mejoras estratégicas y organizativas. Un 22,6% de las empresas de Bizkaia ha realizado alguno de estos cambios en el período 2005-2007, dicho porcentaje disminuye en 3,3 puntos con respecto al período anterior.

En el plano sectorial un 23,3% de las industrias de 10 ó más trabajadores/as ha llevado a cabo cambios estratégicos u organizativos en el 2007, situándose 6,7 puntos por debajo a los de 2006. Un 14,7% ha llevado a cabo cambios en los conceptos/estrategias de marketing y un 11% ha modificado el diseño de sus productos.

BESTE ALDAKETA BATZUK ESTRATEGIAN ETA ANTOLAKUNTZAN

OTROS CAMBIOS ESTRATÉGICOS Y ORGANIZATIVOS



Aurreko urtean bezalaxe, eraikuntza sektorea da horrelako aldaketa gutxien egin dituen.

Zerbitzuen sektorean aldaketa gehien antolakuntza egitura berriak martxan jartzeko egin dira (%16,3), eta baita ere estrategia korporatibo berriak edo nabarmen hobetutakoak praktikan jartzeko (%15,5).

Al igual que en el período anterior, el sector de la construcción es el que menos ha aplicado este tipo de cambios.

El sector de servicios centra los cambios en la puesta en marcha de nuevas estructuras organizativas (16,3%) y en la puesta en práctica de estrategias corporativas nuevas o sensiblemente cambiadas (15,5%).



gure web
nuestra web
www.barrixe.com

informazio gehiago:
Más información:
www.camaraschange.es

Change Proiektua
Proyecto Change



Berriak
Novedades

Prentsa Txostena

Zerbitzu berri honek hilero biltzen ditu hedabide nazionalak eta lokalek berrikuntzari buruz argitaratu dituzten albisteak.

Dossier de Prensa

nuevo servicio que, con carácter mensual, incluye noticias sobre innovación publicadas en los medios de comunicación de ámbito nacional y local.

“Energia adimentsua Europarentzat”

Bilboko Merkataritza Ganberak eta Europako 60 Ganberak sustatu dute proiektu hori, ETEak energiaren arabilera eraginkorraz eta energi aurrezkiaz kontziazzeko.

“Energía inteligente para Europa”

La Cámara de Comercio de Bilbao y 60 Cámaras de Comercio Europeas impulsan este proyecto con el objetivo de sensibilizar a las PYMES sobre el uso eficiente de la energía y el ahorro energético.

